

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko apirilaren 12a

*

Haur-hizkuntzaz eta bestez

Euskarazko haur-hizkuntzaren berezitasunak, XVI. mendeko lekuizen izabarrak, duela hiru mendetako idazkietan aurkitutako goitizen aipuak edo joan den mendearen bukaeran Iruñerrian euskarak zituen mugak zehazten dituen dokumentua dira, besteak beste, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateak argitaratzen duen 'Huarte de San Juan' aldizkarian aurki daitezkeen lan batzuk. Unibertsitateko lanak eta ikerketak argitaratzeko pentsatuta, oraingoan bost ale atera dira batera: Soziologia eta Gizarte-Lana, Zuzenbidea, Psikologia eta Pedagogia, Geografia eta Historia eta Hizkuntzalaritza eta Literaturari buruzkoak. Azken honetan aurki daitezke lanik interesgarrienetakoak.



Mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



«Yo soy indio malo». New Mexicoko iparraldean geunden, lautada kiskalieren erdian, azoka erraldoi batean, eta indioaren erantzunak nahasi egin ninduen, nik *indio pueblo*-a zenentz galdengin bainion. Ene harriuraz oharuta afera argitzen ahalegindu zen hurrengo azalpenekin. Han goikoak, harri turkeseko muinoetakoak, haiek bai indio zintzoak. Lezeetan bizi ziren, eta soilik Aste Saindu aldera egiten zuten aire zabaleran, zauriak eta lлага preziosuak erakustera eta jende aurrean azoteez larrutzero. Uste dut irribarre egin nuela, eta orain ez dakit zergatik.

Etorri ziren, eta joan dira. «Los días señalaitos» deitzen die Raimundo Amadorrek. Hemen geratu behar halabarrez, eta bake saindua espero eta desira nuen. Erraza izanen zelakoan nengoen gainera, primaderako eguzki berriaren lehen printzak xurga-

Indio malo

tzera, mendi bizikletari neguko hautsa kentzero, kolore distiranteko txandalak eta trajebainuak estrainatzera joanen zirelakoan herrikide gehienak. Joan dira, bai, baina beti uste baino gutxiago izaten dira.

Hemen zer? Ez nuen sorpresarik izan. «Tonu moreak nagusi. Urte guzti-koak, piska bat markatuagoak, agian», nire artean. Errepasoa egiten hasi nintzen, Cortijo honetan gailentzen den bizilagunaren erretratu-robotat osatzen: ibilkera mantsoa eta ahots tonu altua, Telepamplona ikusteak areagotzen duen zuhaila masailetan, urrezko medailatxoan Nafarroako maparen perfla eta medailatxoan elastikoaren gainetik, kanfor usaina igandeko trajean, igandeko pasearen helmuga ahate tristet betetako putzu batean... Ez gara inoiz aski jabetzen, ordea.

Látza izan da. Aski ongi dakit zenbat

eliza dauden inguruan, egunero entzuten ditut ezkilak, jakitun nago herrialdearen izpirituaz, ezin hobeki islatzen baitituzte bertako Diarioek. Bizilekuak misterio gutxi gordetzen zituela uste duenaren harrokeriaz jokatu nuen. Izuak kolpatu ninduen orduan. Eta ez da desagertuko Alde Zaharreko lauzen gainean argizari arrastoak diren bitartean.

Pozgarriak ere izan da. Motozerra batek ekarri zuen, egunsenti loriatsu batez. Pozak segürrik zortzi hilabete iraunen duela diote. Indioaren esperantza da, galdu ere galdu daitekeela dakiarenarena. Kaltetuak hasi dira oldartzen.

Fede ikaragarria daukate, ez da ahanzi behar horietako batzuk indarberriturik datozela prozesioetatik. Eta putzu handi hori bukatzen dutenean ura bedekintuko dute. *Con dos cojones.* X

✂ GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Lesaka: Gari Hertzainako kantari ohiak eta bere taldeak gaur gaueko 11.00etan kontzertua eskainiko dute, Atxaspi ostatuan.

Lizarra: Gustavo de Maeztu museoan Trio Palomares taldeak biolin, biola eta txelo kontzertua eskainiko du gaur, 20.00etan.

Tafalla: Gabalzeka aretoan Nahi ta Nahiez taldeak joko du gaur, gaueko 11.30etan.

Gares: Fundamental aretoan Burning eta Leize taldeak kontzertua eskainiko dute bihar, gaueko 11.00etan. Sarrera 1.500 pezeta kostako da.

Iruñea: Errotxapea auzoko Garroa kafetegian Scana taldeak joko du gaur, gaueko 12.00etan.

Larraintzar: Ultzama eta Anueko AEK-k gaupasa antolatu du biharko. Gauerdiko 12.00etan hasiko da Drindots taldearekin.

ZINEMA

Iruñea: Olite zineman *El crepúsculo de los dioses* pelikula eskainiko da arratsaldeko 8.00etan.

ANTZERKIA

Iruñea: Pimpilinpauza taldeak *Edurnezuri* antzezlan eskainiko du etzi, arratsaldeko 6.00etan, Nafarroako Antzerki Eskolan.

Iruñea: Gaiarre antzerki aretoan *Goya* antzeztuko du El silbo vulnerado taldeak datorren ostegunean, arratsaldeko 8.00etan.

Iruñea: Bederen I taldeak *Ezkon gaua* obra aurkeztuko du datorren ostegunean, Nafarroako Antzerki Eskolan, arratsaldeko 8.00etan.

ERAKUSKETAK

Iruñea: Planetarioan, National Geographic elkartearen 107. urtea ospatzen dela-eta, argazki erakusketa dago ikusgai apirilaren 26a bitartean. Ordutegia hauxe da: asteartetik ostiralera 17.30etatik 21.00etara. Larunbat, igande eta jaiegunetan 11.30etatik 13.30etara.

Iruñea: Aurrezki Kutxa Munizipaleko García Castañón aretoan Carlos Pascualen obra dago ikusgai.

Iruñea: Gotorlekuko Bolborategi aretoan 80ko hamarkadako Espainiako arteari buruzko erakusketa dago zabalik datorren igandera arte, apirilak 14. Aretoa lanegunetan irekitzen dute 18.00etatik 20.30etara eta jaiegunetan 12.00etatik 14.00etara.

IKASTAROA

Iruñea: Perkusio latinoak ikasteko ikastaroa antolatu dute Aitzoainen, Artsaia aretoan. Izena eman nahi duenak, 21 26 76 telefonora dei dezake.

na far kronika

Patxi Larrion

Kronikoa

Herriaren barne muina eta herri honen barruko dinamika aldaezinak omen dira. Urteak igarota ura bere bidean askoren iritziz. Historialariek, aro historiko ezberdinen arteko konparazioa egiteko garaian tentu händiz jokatzeko dute. Soziologiek haratago joateko ohitura daukate, ausartegiak nonbait.

Muga fisikoak hausten ari diren garaian le-
rroa muga bihurtua. Kontu bera darabilte alde batean zein bestean. Alta, muga psikologikoak gainditzeko tenorean arazoak nonahi.

Euskal Herriko Itzuliak Nafarroako Gober-

nuaren babespean gure lurraldea zeharkatu du. Bizkitartean, *ito nahi ez* afera dela eta ziega bisitatu dute batzuek.

Aro nahasiak gureak, ez oso aspaldi zuhurtasunez jokatzeko trebezia erakutsi behar genuela leitu nuen. Zuhurrak izan ala ez, garbi jokatu dute ur uherren gainean. Egiaren jabeak urrutiko joaten ohi dira. Gauden gaudenean egiak boterearen haserre piztu du, mugarik gabeko eremuetara eramanez nahi gaitu.

Ezin jakin orriotakoez egoera honi erantzun ote dioten. Zuhurtasunez jokatu ala ez, ibilbide malkartsua aurrean duguna. Sarri artio.



aste ko pertsonaiak



Julio Villanueva
Itoitzekiko Elkartasuneko kidea

Julio Villanueva Itoitzekiko Elkartasuna taldeko kideari, larunbat goizean urtegi zinkeko guardak emandako jipoiaren ostean, tinpano berria ezarri beharko diote. Itoizko lanak zaintzen dituzten zinkeko guardak bortizki jo zituzten Julio Villanueva eta urtegi porlana garraiatzeko erabiltzen diren kableak moztu zituzten beste zazpi kideak. Julio Villanuevak tinpanoa lehertua du, eta ebakuntza egin beharko diote. Asteartean Isabel Segurak, Agoizko epaitegian ordezko lanetan dagoenak, sabotajearen parte hartu zuten lagun guztiek espetxeratzeko agindua eman bazuen ere, zauritua Nafarroako Ospitalera eramanez zuten ongi aztertze-ko.



Paquito
Osasunako entrenatzailea

Azken egunetan Nafarroako komunikabideetan agertutako berrien arabera, Paquito Osasunako entrenatzaileak orain hilabete bat erran zion taldeko zuzendaritzari Osasuna utzi nahi zuela. Antza denez, Paquitok Osasunako gerentea den Angel Bizkairi eman zion bere erabakiaren berri. Juan Luis Irigarai lehendakariak erran duenez, Sadarren Sestaoren aurka galdu ondoren hartu zuen Paquitok taldea uzteko erabakia. Orain Leganesen aurka gaitzeak areagotu egin du Osasunaren barruan bizi den egonezina. Jarraitzaileen txistuak entzun behar izan zituen Paquitok. Orain hiru hilabete kontratua berritzeko aukera eskaini bazion ere, azken emaitzen ondoren zuzendaritzak ere zalantzan jarri du aukera hori.

ahaztu gabe!



MENDI IRTEERAK

Barañain: Herriko eta inguruko mendizaleek izanen dute nora joan, Lagunak mendi taldeak datozen hilabeteetarako mendi irteeren egutegia kaleratu berri du eta. Hasteko, igandean Loiti eta Untzue bitartean ibilaldia egingen dute. Hil honen 21ean, berriz, Arnaba 1.256 metroko mendia igoko dute Lagunak mendi taldeko kideek; eta 27an, azkenik, 2.112 metroko Lapakiza.

Maiatzean ere hainbat mendi irteera izanen da. 5ean, Txaruta eta Garmendia mendiak igoko dituzte, 1.084 eta 1.060 metrokoak. Hilaren 12an, Malkorra eta Larraspil izanen dira igo beharreko mendiak, eta 19an Insoleko lepoa. Hileko azken igandean, 25ean, Sarbil igoko dute.

Ekainerako ere hainbat irteera prestatu dituzte Lagunak mendi taldeko kideek. Hauetan guztietan parte hartu nahi duenak Lagunak mendi taldearen egoitzan eman behar du izena. Ibilaldi bakoitzaren prezioa ezberdina izanen da: egun erdikoak badira 200 pezeta, eta egun osoak 700. Aurretik izena eman gabe parte hartu nahi dutenek 100 pezeta gehiago ordaindu beharko dute.

a di!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gainera*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Ultzama

Apiril Kulturala martxan

Astelehenean hasi ziren ekitaldiak eta maiatzaren 11 bitartean iraungo dute

Azken urteetan bezala Apiril Kulturala antolatu du Ultzamako Kirol eta Kultur Patronatuak aurten ere. Astelehenean hasi ziren lehen ekitaldiak eta maiatzaren 11n ospatuko den Jubilatuen Eguna emanen dio amaiera aurten egitarauari. Bitartean, eskaintza zabala denen gusturako.

Erredakzioa / Iruñea

ULTZAMAKO Kirol eta Kultur Patronatuak Apiril Kulturala antolatu du aurten ere. Duela bospasei urte hasi ziren Ultzamaldean halako kultur egitaraua prestatzen.

Lehen ekitaldiak joan berri den aste honetan bertan egin dituzte. Astelehentik eta ostiralea bitartean, ludoteka eta jokoak izan dira haurrentzat goizero, hamalaketatik ordu bata arte, Larraintzarko pilotalekuan. Izanen da hil osoan zehar bestelakorik ere. Gaur, adibidez, gaupasa egingen dute.

Apiril Kulturalako bigarren astea hilaren 15ean, astelehena, hasiko da. Astelehenean, kirolari buruzko mintzaldia izanen da Gerendiango Aitona jatetxean, arratsaldeko zortzietan. Bertan izanen dira Osasuna eta Numanciako futbolariak, txirrindulariak eta pilotariak.

Astelehenean eta ostiralea bitartean, LANE talde ekologistak antolatutako *Ezagutu gure oihana* izeneko erakusketa izanen da ikusgai Larraintzarko eskolatan.

Apirilaren 19an eskualdeko nekazaritzaren etorkizunaz eta Orgiko (Lizaso) basoan atsedenean.



Amaia Zubiriak Larraintzarren abestuko du maiatzaren 3an.

ARTXIBOKOA

lekua egiteko proiektuaz mintzatuko dira Angel Gainza ITG Nekazaritzako gerentea eta Plazaola Partzuergoko arduradun bat. Arratsaldeko bederatzietan izanen da hitzaldia, hau ere Larraintzarko eskolatan.

Apirilaren 20an herri kirola izanen da Ultzamaldean protagonista. Nafarroako txapelketako sokatira eta konbinada probak egingen dituzte larraintzarrek. Biharamunean, eskulangileen erakusketa izanen da herri berreko frontoian, goizez.

Hirugarren astea apirilaren

26an hasiko da. *Jaberik gabeko zopa ontzia* antzeztuko du Iruñea Teatro taldeak Larraintzarko eskolatan, arratsaldeko zortzietan. Jai giroko muntaia da, ironiaz eta umorez betea. Aktoreak eta txotxongiloak nahasten dira eta komediaren bidez gerraren kontrako eta herrien arteko elkarlaren aldeko mezua aurkezten du taldeak. Apirilaren 28an, berriro, pilota jaialdia izanen da herriko frontoian. Eskuz, Almandoz-Apezetxea eta Ansola-Satrutegi ariko dira, eguerdian. Laugarren astean, maiatzaren

3an, *Zer gertatzen da munduan?* hitzaldia eskainiko du IPESeko partaide batek Larraintzarko eskolatan, arratsaldeko zortzietan. Nazioarteko egoeraren nondik-norakoak, munduan ditugun gerrak, Europan sartzeak ekarri dituen ondorioak eta beste hainbat auzi aztertuko dituzte hitzaldi honetan.

Egun berean, Amaia Zubiriak kantaldia eskainiko du gaueko hamar eta erdietan, herriko pilotalekuan. Bukatzeko, Jubilatuen Eguna ospatuko dute maiatzaren 11n. X

Tutera

Herriarrei zuzendutako kultur ekintzak hastear dira

■ Ikastaro berriak antolatu ditu Castel Ruizek

Erredakzioa / Iruñea

TUTERAKO Castel Ruiz kultur zentroak datorren astean hasiko ditu herriarrei zuzentzen diren ekintzak. Alde batetik, datorren ostegunetik maiatzaren 30era bitartean *Musikarako gonbidapena* izeneko kultur ekitaldia antolatu du. Parte hartu nahi duten ikasleek astero ordubeteko klasea izanen dute, arratsaldeko zortzi eta erdietan hasita, Castel Ruiz zentroan bertan.

Musikarako zaletasuna piztu nahi duen kultur ekitaldi horren arduraduna Mariano Hernandez izanen da. Parte hartu

nahi duenak hil honen 18a baino lehen eman beharko du izena. Ikastaroak 4.000 pezeta balio du.

Bestalde, Jose Javier Alfaro poetak *Literatur sorkuntza* izeneko ikastaroa zuzenduko du zentroan. Hil honen 17tik ekainaren 12ra bitartean egingen dute, eta matrikulak 5.000 pezeta balio du. Aurrekoan bezala, ikastaroa hasiko den egunean bertan eman dezakete izena parte hartu nahi duten guztiek. Ikastaro horren bidez partehartzaileen idazkera hobetu nahi dute antolatzaileek, testuak aztertuz, baita euren irudimena piztu ere. X

Lizarra

Eskultura birziklatu eta bitxiak Gustavo Maeztun

■ Maria Jose Rekalderen erakusketa Lizarran

Erredakzioa / Iruñea

MARIA JOSE REKALDEK birziklatutako gauzeekin egindako instalakuntza paleontologikoa ikusgai da Lizarrako Gustavo Maeztu Museoa. Historiaurreko eta egungo animaliak eta giza irudiak eraiki ditu, horretarako nekazal tresna zaharrak erabili.

Camino Paredes Museoko zuzendariak eskatuta osatu du Maria Jose Rekaldek halako erakusketa. Bertan, historiaurreko irudimenezko mundua aurkezten du artistak, gizakia, mitologia eta animaliak armonian bizi diren mundua, hain

zuzen. «Objetu hauek noizpait lurra lantzeko erabili izan dira baina orain ez dute baliorik. Forma eman eta erakutsi nahi izan ditut nik; bizirik daude berriro» azpimarratu du Maria Jose Rekaldek.

Rekaldek erabili dituen nekazal tresna horietako asko, hain zuzen, Deikazteluko herriarrek eman dizkiote.

Erakusketa hila honen 2an zabaldu zuten eta datorren ekainaren 30era bitartean izanen da ikusgai. Goizetan, 11.00ak eta 13.00ak bitartean dago zabalik eta arratsaldetan, 17.00ak eta 19.00ak bitartean. Astelehenean itxita dago. X

Bera

Lamixine BAT antzerki taldeak lan berriaren estreina aurrea egingen du bihar

■ Estreina urrian izanen da, euskaraz

Jon Abril / Bera

LAMIXINE BAT-EK (Berako Antzerki Taldea) bihar aurkeztuko du jendaurrean azken lana. *¿Ya ves qué preciosas están las petunias?* antzezlanaren estreina aurrea izanen da, gaztelarazko bertsioan. Arratsaldeko zortzietatik aitzinera jarriko dute aktoreek obra hau taula gainean, Berako Kultur Etxean. Estreina, urrian izanen da, baina orduan euskaraz eskainiko dute lan berria Lamixine BAT antzerki taldeko kideek.

Istoria taldeko kideek sortua da, jantziak eta eszenografia bezalaxe. Bertan, auzo bateko pertsona arras ezberdinen bizimodua erakusten da. Denbora tarte tiki batean, nolabaiteko eboluzio bat izaten dute, beren bizitzan eragin handia edukiko duena.

1992ko udazkenean sortu zen taldearen bigarren antzezlan da hau, 1994ko ekainean eta 1995eko urtarrian *Altzateko Jaun* lana aurkeztu baitzuten.

Hala ere, denbora tarte honetan, aretoko antzezlanak prestatzeaz gain, hainbat ekintza prestatu izan ditu.

Urrutira jo gabe ere, lan berriak prestatzen dihardute. Apirilaren 20an, Gazte Jokotako inaugurazio-besteak kale animazioa egingen dute, eta maiatzaren 18an akabera-besta erraldoia ere euren esku egingen da.

Taldeak hamar lagunek osatzen dute egun, horietatik zortzi herrikoak dira, Berakoak, eta gainerako biak Orio eta Lesakakoak. Zuzendari lanetan, Maria Agirre aktore profesionala dute eurekin. X

Lesaka

Lehenengo Rally-esprinta egingen dute igandean Agiñan

Jon Abril / Lesaka

EGUZKI ELKARTEAK antolatuta, igande honetan, arratsaldeko hiruretatik aitzinera, Lesakako Lehenengo Rally-esprinta egingo da Agina mendiko maldetan. Ibilbidea 5,9 kilometroan hasiko da eta 10 kilometro egin beharko dituzte helmugara ailegatu arte. Errepidea ordu erdi lehenago moztuko da ikustera joan nahi duten guztientzat. Proba lehendabizikotz egiten ari diren euskal *challenger*-erako puntuagarria izanen da, era berean. X

Unibertsitateko lanen ahotsa

'Huarte de San Juan' aldizkariaren ale berrietan euskarazko ikerketa lanek toki azpimarratzekoa daukate

Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) Giza eta Gizarte Zientzieta-ko Fakultateak argitaratzen duen 'Huarte de San Juan' aldizkariaren bost zenbaki berri kaleratu dira, hizkuntzalaritza eta literaturari eta psikologia eta pedagogiari buruzko lehenak tartean. Iaz lehen hiru aleak —zuzenbidea, soziologia eta gizarte-lanaren arlokoak— kaleratu zituen aldizkariak, eta orain bostak batera argitaratu dira.

Alberto Barandiaran / Iruñea

HAUR-HIZKUNTZARI buruzko lanak, izengoitien inguruak, 1878an euskarak Iruñerrian zituen mugak, edo XVI. mendeko Izbako lekuizena dira, besteak beste, aldizkarian aurki daitezkeen ikerketatxoak. Edonondik begiratuta ere, ekarpen balio-tsua, unibertsitatearen inguruan egiten diren lanen oihartzuna izango delako, eta, orain arte argitaratutakoaren barruan, euskarak ere toki berezia izango duelako.

Alberto Perez Calvo eta Angel Garcia-Sanz Marcotegui irakasleak dira argitalpenaren arduradunak, eta Patxi Salaberri egin ditu euskarazko testuekin aholkulari lanak. Aldizkaria sortzeko asmoa aspaldikoa bazen ere, ez da erraza izan azkenean kaleratzea, eta interes handien erakutsi duten sailen artean —Hizkuntzalaritza, Geografia eta Historia, Zuzenbidea, Soziologia eta Psikologia— argitaratu da: «Hasieran», azaldu du Angel Garcia-Sanzek, «bost aldizkari ezberdin ateratzeko asmoa izan zen, baina ez dugu jende nahikorik hori egin ahal izateko. Zuzenbide fakultatean, adibidez, 45 irakasle daude, baina Historia eta Geografian, 15 besterik ez».

Ahalegin garrantzitsua dela ezin uka, baina historia irakasleak onartzen duenez, ez dira gutxi goizegi egin dela pentsatzen dutenak. «Horrelako argitalpenak ateratzen dira unibertsitatea errotuta eta sendotuta dagoelarik, baina hor gaude, eta kalitatearen aldeko apustua egin dugu». Gaiak askotarikoak dira, eta helburua espezializazioa baldin bada ere, Erdi Aroko gaiak eta garaikideak, ekonomiakoak eta gizarte gaiak, denak nahasita izatea «daukagun unibertsitatearen ispilu» dela nabarmentzen du Garcia-Sanzek.

Euskarazko testu ugari • Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateak ateratako liburukien artean azpimarratzekoa da Hizkuntzalaritza eta Literaturari buruzko le-



Izbako lekuizenei buruzko lana argitaratu du Lopez-Mugartzak.

ARTXIBOKOA



Haur-hizkuntzari buruz Juan Jose Zubirik eginiko ikerketa da argitalpeneko lanik interesgarrienetakoa.

ARTXIBOKOA

hen ale atera berria, jorria euskarazko eta euskarari buruzko artikulutan. Argitaratzen diren zortzi ikerketetatik lau dira euskaraz —Orreaga Ibarak Ultzamako hizkeraren polimorfismoa izenaren inflexioan gaiari buruz eginikoa, Juan Karlos Lopez Mugartzaren XVI. Mendeko lekuizena izeneko, Patxi Salaberriren Nafarroako zenbait izengoitien inguruan deritzona eta Juan Jose Zubirik idatzirikoa Euskarazko haur-hizkuntzaren berezitasunak—, eta Angel Garcia-Sanzek 1878an euskarak Nafarroako mendebaleko erdialdean zituen muga eta egoerari buruz dokumentua ere jasoa dago.

Azken lan hau azpimarragarria da, bide ematen duelako Iruñerria, Goñibar, Gesalatz eta Deierri joan den mendean euskarak zuen egoerari buruz eta ziztu bizian zihoan desagerpenaren arrazoiei buruz datuak izateko. Aipatu dokumentuan Joaquín Otxoa de Olzak zehaztu egiten ditu 1878an euskarak inguru honetan zituen mugak. Idazkia Nafarroako Asociaçion Euskara taldeak eginiko galderaren erantzuna zen. Izan ere, urte hartako apirilean, talde honek

Angel Garcia-Sanz:
«Horrelako argitalpenak ateratzen dira unibertsitatea errotuta eta sendotuta dagoelarik, baina hor gaude, eta kalitatearen aldeko apustua egin dugu»


Cadizko (Espainia) Francisco Maria Tubinoren eskutitz bat jaso zuen, euskarak herrialdean zuen zabalpenari buruz galdezka. Taldea berehala jarri zen lanean eta eskutitzak bidali zitzaizkion hainbat bazkideri, erantzun zitzaten galdera hauek: *Eskualde horretako zein herritan hitz egiten da solik euskaraz? Zeinetan euskaraz eta erdaraz? Non dago muga solik erdara erabiltzen duten herriekin?*

Ez dago jakiterik jende gehiagok izan ote zuen galdera hauek erantzuteko aukera, ez beste galderarik egin zen, ez eta erantzunak non dauden ere. Otxoa de Olzak, idatziz bidali zuen bere erantzunean, marra bat aipatzen du euskara eta erdararen arteko muga zehazteko.

Marra horrek Sorauren du hasiera, eta hortik Eusa, Orrio, Makirriain, Elkarte, Oteitza, Balliriain, Larrageta, Itza eta Oltzako Zendea, Azantza eta Munarritz Goñibarren, Argiñano Gesalatz, eta Ibiriku Deierri zeharkatzen ditu. «Hortik gora», dio Otxoa de Olzak bere idazkian, «nahiz eta ohizkoen erdaraz mintzatzea den, ez da izango ba-

'Huarte de San Juan'
aldizkaria


Artikulu interesgarri
batean, Patxi Salaberrik
Nafarroako
zenbait izengoitiren
inguruan dihardu,
batez ere XVI.,
XVII. eta XVIII.
mendeetako izkribuetan
topatutako izengoitien
inguruan



Patxi Salaberri.



Orreaga Ibarra.



Juan Carlos Lopez-Mugartza.

Zubirik horrela
laburbiltzen ditu
haur-hizkuntzaren
bereizitasunak:
zehatzagoa da,
enfatikoagoa,
markatuagoa eta
errepikakor eta
sinpleagoa helduena
baino

kar bat ere 25 urtetik goitikoa euskaraz ez dakienik edo ulertzen ez duenik; azpimarratu behar da hizkuntza hau aisialdirako erbiltzen dutela bereziki, baina ohargarria da gazte asko eta askok, hitz egiten dakiten eta ulertzen duten arren, gurasoei entzun dietelako, ez dutela erabiltzen, kezka inozoa dutelako horrek gutxiagotu egiten dituela, gehienek gorroto diotelako Nafarroako beste alde batzuetako euskaldunei esaten dieten *montañeses* izengoitiari.

Beste artikulu interesgarri batean, Patxi Salaberrik Nafarroako zenbait izengoitiren inguruan dihardu. Hizkuntzalariek Nafarroako notari-protokolo artxibategian, batez ere XVI., XVII. eta XVIII. mendeetako izkribuetan, aurkitutako aleak bildu egin ditu zenbait ikerketatan, eta alderatu egin ditu Andres Iñigok Malerreka inguruan bildu zituenekin. Salaberrik multzoka sailkatu ditu aurkitutakoak. Lehendabizi, herri-izena dutenak: *Gabiria, de Artabia, de Izkué, Orokieta...* Bigarrenik, bailara-izena dutenak: *Ultzama, Usulapeña...* Gero, eskualde baten izena hartu dutenak daude, hala *Araba, Aragon, nola gallego, provinciano...* Hiri baten izena duten izengoitiak ere badaude —*burgales, madrileño*—, eta baita eskualde oso batekoak direnak —*argel*—. Oso arruntak dira dokumentazioan etxe-izena duten izengoitiak: *aingeru, argina, bergerandi, ezkerrena, kapero, otxoarena, txikarra, zarkume...* eta ez urriagoak pertsona-izena dutenak, esate baterako *Juani, Juaniko, Maribaltza, Roldan, Txartiko* edo *Txerran*. Izendondo edo adjetiboak ere franko dira: *aguado, arriskabea, beltz, galant, gonagorria, laburra, musarro, urdin...* Horiekin batera 'persona-izena + izendondoa' osarakoak aurkitu ditu Salaberrik —*Joanzuri, Santxoandi*—, 'izena + deiturakoak' —*Joanibañes, Marigartzarun*—, lanbidekoak —*amero, artzaia, tabernero*—, 'gorputz atal baten izena + izendondoa' erakoak —*begigorria, bizarzurri, buruzuri, musugorri*—. Gero jatorri ilunekoak direnak sailkatu ditu ikerleak —*anko, malsin, mimjuiz, moldesko, per-txin, tirin, txañat, txieste, zela-ma...*—, zalantzak —*amorea, arbeo, arina, gaztea, gorri, indar, txur, luxea, sotil, xibilia*—, eta beste deiziorien bat dutenak —*apezsua, epotx, garabato, jaunzeruko, mamorra, txikote* edo *txista*, bakar batzuk aipatzearen—.

Haur-hizkuntzaren

bereizitasunak • Juan Jose Zubirik, bere aldetik, euskarazko haur-hizkuntzaren bereizitasunak jorratu ditu Hizkuntzalaritza eta Literatura alean argitaratu duen lantxoan, Goizuetako bi haurri bi urtetan zehar egindako jarraipenaren ondoren. Zubirik haur-hizkuntza honen ezaugarri orokorrak zehazten ditu aurrenik, eta gero euskarazko kasuan antzeman daitezkeen bereizitasun batzuk. Hasteko, ikerleak aipatzen duenez, esan behar da helduak moldatu egiten duela bere hizkuntza komunikazioa erraztearren. «Badirudi», idatzia dago, «horrela elkar aiseago ulertuko dutela; gainera, ahozko ekoizpenekin batera adierazi berdintsua duten keinuzko jo-

kabideak erabiltzen badira areagotu egiten da elkarren arteko komunikazioa». Hizketamota honek ezaugarri bereziak ditu, Zubirik aipatzen duen bezala, baina badira interpretazio asko horri buruz teorizatzean. Batzuek diote hizkuntzaren azpisistema bat dela, beste batzuek estilo berezi bat besterik ez, eta beste batzuek, berriz, aldaketa fonetiko eta lexiko bereziak dituen azpikode bat. Autorearen arabera, ezaugarriak horrela laburbildu litezke: hizkuntza zehatzagoa da helduekin erabiltzen dena baino, eta baita enfatikoago ere; halaber, markatuagoa eta errepikakorra da, eta sinpleagoa helduena baino; galderazko eta agintezko perpaus asko ditu eta aditza, bestalde, hiru-

garren pertsonakoa izaten da lehenengoa edo bigarrena erabili beharrean.

Euskarazko haur-hizkuntza honen ezaugarriak aipatzen ditu gero xehetasun handiz Zubirik. Alde batetik, bereizitasun fonetikoak daude, batez ere fonema kontsonantikoaren arloko txistu-karien saillean suertatzen direnak. Ikerleak dioenez, sabakari bihurtzeko joera handia dago kasu honetan. Alegia, *tz, ts, z*, eta *s, tx* eta *x* bihurtzen dira, eta *tx* eta *x* bere horretan gelditzen dira. Adibide batzuk paratzen ditu egileak: *Xer ari xara xu? Ez al duxu ikuxten xikindu egingo xarela?* Bestalde, bereizitasun morfosintaktikoak nabarmentzen dira lanean, esate baterako «izen nagusiak bezala deklinatzen di-

ren hitzak, *apapa* hitz bereziaren erabilera, aditza laguntzailerik gabe emateko joera, zenbait hitz absolutiboan bakarrik ematekoa, eta haur-hizkuntzako hitzen kategoria gramatikal berezia zenbait kasutan». Halaber, bereizitasun lexikalak ere nabarmentzen alpatzekoa da, berezko hitz egia osa daitekeelako haur-hizkuntzarena.

Aipatzekoa da, bestalde, Geografia eta Historia saillean argitaratutako bigarren liburuxkan Josu Chueca historiagileak Julia Fernandez Zabaleta eta Catalina Alastuey emakumei buruz egindako lana, eta psikologia eta pedagogia alean Jaione Apalategik *Ikastetxearen erantzunkizuna gizartean eta gizartearena ikastetxean* izenpean idatzirikoa, eta Pablo Sotesen *Ikasgelako elkarrengarria eta bigarren hizkuntzaren eskurapena* izena darmana.

Nafar unibertsala

■ Huarte Donibanekoa XVI. mendeko filosofo handienetakoa izan zen

A.B. / Iruñea

ALDIZKARIAK Huarte Donibanekoaren izena hartu izana ez da harrigarria, *Examen de ingenios para las ciencias* lanarekin psikologiaren eta filosofiaren historian toki aukeratua baitu filosofo eta mediku doniandarrak. Angel Garcia-Sanzek azaldu duenez, izen hori aukeratu zen irakasle Eskolan aurretik ateratzen ziren aldi-zakiek izen bere zeramatelako, eta baita filosofoaren izaerarengatik ere: «bera da unibertsaltzat har daitekeen nafar barrenaetakoa».

1529 edo 1530ean jaioa zen Juan Huarte Donibane-Garazin. Gazte zelarik joan zen bere familiarekin Espainiara eta Baezako Unibertsitatean Arteetako lizentziatura eskuratu zuen. 1553an Alcalako Unibertsitatean hasi zituen medikuntza ikasketak, eta bi urte beranduago Batxilergoan graduatu zen. 1559an doktoregoa lortu zuen toki berean. Bere baitan bildu zituen hezkuntza filosofikoa eta medikuntza, eta bere bizitza osoan azken arlo honetan lan egin bazuen ere, berak beti filosofoa zela esan zuen, naturaren filosofoa.

Espainian eman zuen bere bizitza osoa, eta ospe handiko medikua izan zen. Taranconen hasi zen lanean, baina gero Linares

eta Baeza bitartean eman zituen urte gehienak. Garai hartan izugarritzko izurritea zabaldua zen Andaluziako herri hartan, eta hara bidali zuen Espainiako Erregeak. Baezan mediku izan zen 1571tik 1588ra arte, hil arte. Hala ere, ez unibertsitatean ez medikuntzan eginiko lanarekin ez zegoen iragartzetik bere lanik ospetsuenarekin —aipatu *Examen*— lortu zuen ospe izugarria.

Lan honen edizioa Baezan bertan argitaratu zen 1575ean, egileak berak finantzaturik. Huartek oinarri bat dauka: gizakiek adimen ezberdinak dituzte, eta,

gaitasun horrekin. Bigarren urratsa izango litzateke aztertzea gaitasun horien gordelekua: arima edo gorputza? Huarterentzat ez daitezke ariman egon, teoriarik arima guztiak berdinak direlako. Beraz, izaera da garrantzitsua.

Garai hartan izaerak oso lotuta zeuden gaitasun humoralekin, alegia berotasuna, hoztasuna, hezetasuna eta idortasunarekin. Hoztasuna baztertu egiten du doniandarrak, adimenerako kaltegarria delakoan, eta beste hiru gaitasunekin: adimena idortasunarekin, memoria hezetasu-

Horrekin batera, pedagogia ere jorratzen da *Examen de ingenios* lanean. Hiru adimen mota zehazten ditu, eta baita horien aurrean irakasleak eduki beharreko jarrerak ere. Lehena da zientziaren balorea epaitzeko gaitasunik ez dutenena, hezkuntzarako erabateko malgutatasuna dutenena: irakaslea behar dute derrigor, aurreratuko badute. Bigarren multzoan daude irakaspenak erraz onartzen dituztenak, ulertu egiten dituztelako kontzeptu eta ideiak, eta irakaslea gidari egokia izaten ohi da kasu hauetan. Azkenik, errealitateetik bertatik ikasitakoari esker aurrera egiten dutenak daude, irakaslearen laguntzarik behar ez dutenak. Manezandi idazleak filosofoaz egin zuen artikulu batean jaso zuen teoria hauek nahiko ongi argitzen dituen esaketa bat: «Jakintsuen liburuen irakurteak argitzen du ernearen adimendua, baina mutzitzen du gizon ilunarena».

Liburuak izugarritzko arrakasta izan zuen eta XVI. mendearan bukaeran 18 edizio egin ziren gaztelaniaz, frantsesez, italieraz eta ingelesez. XVII.ean 37 egin ziren, latinez eta holanderaz besteak beste, eta XVIII.ean alemanierazko bertsio batzuk ere argitaratu ziren. Ezagutzen dela 79 edizio egin dira lan honetatik. X

Huarte Donibanekoaren 'Examen de ingenios' liburuak
izugarritzko arrakasta izan zuen eta 79 edizio ezberdin
egin dira lan honetatik

halaber, arloa nolakoa den, halakoa izango da gizaki horren erantzunaren maila. Uste duenez, ezberdintasun hauek ez dira ikaslearen ahaleginaren ondorioak, edo hezkuntzarenak, baina pertsonaren baitan dagoen zerbit sakonago batenak. Horregatik, dio pentsalariak, zientzia batean lagun horrek izango duen ahalmena oso lotuta egongo da naturak berak xedatzen duen

narekin eta imajinazioa berotasunarekin. Beraz, memoria gaitasun nagusia dutenentzat, gramatika, hizkuntzak, zuzenbidearen teoria, teologia positiboa, kosmografia eta aritmetika dira zientzia egokiak; adimena dutenentzat, teologia eskolastikoa, medikuntza, filosofia naturala eta zuzenbidearen praktika; azkenik, imajinazioa dutenentzat poesia, musika, hizketa...

Xanti Begiristain

Bai, nahi dut!

■ —Nahi al duzu Urtia senartzat onaldian eta txaraldian, osasunean eta eritasunean, eta abar?

—Bai, nahi dut!

—Eta zuk ere nahi al duzu Berendia osasuntsu eta gaixorik, garai erraz eta zailetan, eta abar heriotzak banatzen zaituzten arte?

—Bai, nik ere nahi dut!

—Eta prest al zaudete onartzeko Jaungoikoak bidaltzen dizkizuen seme-alabak, guztiak, amarurik egin gabe?

—Bai, oso prest gaude!

—Tira ba, une honetatik aurrera aldarrikatzen dut senar-emazteak zaretela...

Geroago etorri ziren zorion-agurrak, irribarreak, argazkiak, otoruntza, tartaren zatiketa, txanpaina, lehen ezkontantza, jende guztia-
rentzako dantzaldia, afaria, azken lagunen agurrak eta hain desiraturako lehendabiziko ezkongaua. Beranduago ezteibidaia eta honen ondoren senar-emazte bizimodu arrunta eta ohikoa.

Hasieran dena ongi joan zen, kasu gehienetan bezalaxe, baina handik urte gutxira gauzak, dena delakoarengatik hasi ziren aldatzen, gehiago oraindik, hasi ziren nahasten, konplikatzen, eta azkenerrako okertu ziren erabat.

Ezkontzaren egunean esandako «bai, betirako nahi zaitut ezkontide!» biei ahaztu zitzaizkien guztiz eta hasi ziren pentsatzen eta esaten ezkontza hautsi beharko zutela, eta handik denbora ez oso luzera, egin ere horrelaxe egin zuten, alegia, elkarrengandik bereizi eta urrundu; norberak bere bizimodua eraman zuen aurrera ahal izan zuen bezala baina elkar utzita.

Hau guztia gertatu omen zen ekialdeko estatu batean; ez dut ongi gogoratzen non, agian Japonia aldean.

Dena den, orain arte kontatutakoa, gaur egun ez da batere gertaera arraroa. Egia esan, gero eta ohituago gaude entzuten jendea, bikoteak, bereizten direla. Hasiera batean, batez ere, goimailako eta jende ospetsuaren artean, adibidez, politikariak, aktoreak, toreatzaileak, abeslariak, idazleak, enpresariak, kirolariak, eta abar. Gaur egun, jende arruntaren artean ere nahiko ohiko kontu bihurtu da.

Orain arte ez da oso arraroa gertatu aditu izana, batik bat entzute handiko pertsonen artean, horietako baten bat ezkontu eta banatu dela sei-zortzi aldiz, baina jakina, beti edo aldi bakoitzean pertsona ezberdin batekin, baina ni kontatzen ari naizen ekialdeko kasu honek berezitasun horixe du hain zuzen ere, dagoeneko bi aldiz ezkontu eta bereizi egin baita bikote berbera, hau da, gizon-emakume berberak bi bider esposatu eta banandu dira haien artean, baina kontuz! istorioa ez baita bukatu, eta dirudienez, eleberri arrosa honek



oraindik badu jarraipena. Duela aste gutxi, komunikabideetan entzun ahal izan zen, bikote horixe bera berriro ere ezkontzera zihoala, bata bestearekin hirugarren aldiz ezkontu, alajaina! Gizonetzakoak 32 urte omen ditu eta emakumezkoak 29. Gauzak ongi joan baldin badira, dagoeneko berriro ere senar-emazte izanen dira, hots, ezkonberriak.

Ikusten denez, mundu honetan gustu guztietarako gauzak eta pertsonak daude.

Gertatutakoak gertaturik, jakin nahi nukeena da, zer erantzun ote zioten ezkongalek apezari azken honek galdetu zienean ea nahi ote zuten elkar hartu betiko, hau da, heriotzak banandu arte.

Apika:

—Bai, betiko nahi dugu elkarrekin bizi!

Edota, agian, osterantzean:

—Bai, hurrengo bereizketa arte nahi dugu! ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Bi olerkari Lapurdiko:
Zesar Duvoisin eta Jan
Batista Kamusarri

■ Jean Pierre Duvoisin Gorostazu alhoar euskal idazle eta itzultzaile ospetsuak horren ezaguna etzaigun anaia bat bazuen izan Zesar zeritzana. Hori ez omen zitzaion batere laketen gurasoek aukeratu izena, eta ia gehienetan C. bakar batez izenpetzen zituen bere lanak, Charles batekin identifikatzera edo Kapitainarekin zuzenean lotzera hainbat eta hainbat irakurle eraman zuena. Jean Pierreri egotzi zitzaizkion lanen artean Paueko *Bulletin de la société des Sciences, Lettres et Arts* agerkarian 1841ean argitaratu *Notice sur la Chapelle de Saint-Magdaleine d'Uztaritz* artikuluxka aipa genezake besteak beste. Duvoisindarren etorkia behiala Lafittek argitu zuen jada, Nafarroako Teobaldo I. arekin XIII. mendean Xanpanatik euskalerriratu Du Voisan zelako zaldun baten bitartez. Amaren aldetiko iturburuak berriz edirengarriagoak zatezkeen alkoaren erroak Baztango bailaran baitzeuden nonbait, eta *Orhiko xoria* eta *Eliza besta* kanten sortzailea zen Jean Gorostazu (1829-1858) garaikidea askazi zuketzen. Zesar apezgai joan zen Larresorora, ez ordea bertan zegokeen apezgaitegira, orduan itxita baitzuen gobernamentuak, behin-behineko Irigolenera baizik. Jean Pierre Kapitaina, aldiz, eta ezagun denez, harrezkero berrikeririk zegoen berriarazko apezgaitegira bai sartu zela, 1823an hain zuzen ere. Bertan irakasle eman zuen egonaldia apika bultzaturik 1733ko apirilaren 29an Larresorokoak ireki zuen Jean Dagerren bizitzari buruz liburua ondu zuen, Baionan 1861ean ageri *Vie de M. Daguerre, fondateur du séminaire de Larresor avec l'histoire du diocèse du Bayonne depuis le commencement du dernier siècle jusqu'à la révolution française* 520 orrialdeko lan mardula alegia. Urte batzuk lehentxeago ere, 1852an prezeski, *Lettres à Polydore sur Cambo et ses alentours* idazkia agertarazi zuen Baionako Lamaignèreren alarguntsarenean, sei urtetan zehar hamar edizio izan zituen, eta tenore hartan ere orrialde kopurua bikoiztu zuena, 111tik 222ra pasatuz. Alabaina, kontu hauek guztiak hutsal dituzkegu gaurkoan, alta olerkari erromantikoa izan zitekeen heinean interesatzen baitzaigu bereziki. Hortaz Parisko liburutegi nazionalen gorderik dagoen *Tableau des mœurs des basques* izenburuko Zesarren esku izkribua ekarri behar dugu hona. Frantseserazkoaren ondok Duvoisin honek euskarazko olerki eta kanta bilduma zegokion egile izenarekin batera gaineratu zuen, eta denen artean Zesarrek berak izkiriaturik bada, Txomin Peillenek 1982ko *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian poema filosofikotzat jo zuen ber. XIX. mendeko ideia erromantikoko arras egoki isladatzen ditu: hala nola tristurari lhes eta histasunari gibelondo egin beharra, edota bakea, plazerra eta naturarekiko atxikimendu gozoa: *Zer da gure bizia, adiskide maltea? / Iragaitza labur bat nahigabez bethea / Oi! Zenbat atsekabe, gure harat-hunetan / Zenbat kierts, bihotz min, goitibehetietan? / Nihor zuhurtziaren amodio duenik / Edireiten badugu, elkargana lehenik / Guztiak bil gaitzen, utz ditagun zoroak / Goazen preza ditagun egiazko gozoak*.

Jan Batista Kamusarri Murgi dohakabea itsasertzeko Ziburun sortu zitzaigun 1815eko otsailaren 18an. Pocalet auzoko karrikan, sendi osoro arrantzaile baten altzoan. Aita jaio urte bereko abuztuaren 22an hil zitzaion lanaren kaltetara, Sokoako badian itota, eta hortik konpreni behar amarengatik zuen maitasun berezia. 1838ko abenduaren 22an apezte ostean ikasturtea Larresoron amaitu zuen irakasle, eta gerontzean Donibane Garaziko erretoze izanen genuen 1842. urtera arte. Birrikak arront eri, hezikak joa, amarengana joan zen eta ber urtean sorterriko Gantabaitan zendu zen abuztuaren 21ean. Bizitza laburra iragan arren, hartu-eman eraginkorrak izan zituen Hiribarren edo Zaldubi bezalako bestelako olerkariekin. Francisque Michelek bere *Ene gogoetak* bertsoa argitaratu zuen, alabaina bilduma osotuena Guadalupe Artolak agertuko zukeen 1988ko Julio Urkixo Mintegiaren gehigarrian, ASJU delakoan. Poeta erromantikoa, ukitu arras hits batekoa, *Haurrak altza bihotza airean eginiko Menditik nola doa olerkian antzeman dezakegu: Menditik nola doa / Ura itsasorat / Hala ni banioha / Lasterka tonbara / Akabo da akabo / Neretzat denbora / Banoa sekulako / Hillen herritara*. Dena den, bertso kementsu eta alaiagoak ere bazituen sortu. ■



Nafarroako banakako txapelketako bederatzigarren jardunaldiko partida, 1996ko martxoaren 30ean jokatu.

Javier Redin, 1.865 ELOkoa — Miguel Argaya 1.965 ELOkoa.

1.e4,e5; 2.Zf3,Zc6; 3.Ab5,a6; 4.Aa4,Zf6; 5.De2,b5; 6.Ab3,Ac5; 7.C3,De7; 8.d3,Ab7; 9.bZ-d2,Gd8; 10.0-0,d5; 11.h3,0-0; 12.Ge1,d4; 13.Zf1,De7; 14.Ac2,Ac8; 15.Zg3,fG-e8; 16.Ag5,De6; 17.Zh4,Ze7; 18.Eh1,Ab6; 19.f4,h6; 20.e5,De5; 21.Af6,Dg3; 22.Ae7,Ge7; 23.Zf3,g5; 24.Zh2,f5; 25.Dh5,Eg7; 26.Zf1,De6; 27.f5,Af5; 28.Zg3.

Beltzek 'Ge1 xa' eginez gero, 29.Ge1,Dg3;

30.Ge7 xa. Ez dago hori jokatzetik, beraz. 28....,Ag6; 29.Dg4,c3; 30.Ge2 xa,De2; 31.c3,Dc5.

Ikus koadroa. Txuriek peoia eskainiko dute, erasoaren truke.

32.Gf1,Dc3; 33.Zh5 xa,Ah5; 34.Dh5,Gf8.

Beltzen defentsa bakarra.

35.Gf8.

Txuriek menperatuko zituztelakoan, beraiek botatako segadan erori dira. Ez dago konponbiderik.

35....,De1 xa; 36.Eh2,Ag1 xa.

Joko taktikoa zaindu behararen adibidea dugu honako partida hau.



Kulturaren Ortzadarra

Folklore eta kultura tradizionalari buruzko jardunaldietarako deialdia zabaldu dute Iruñean

Urtero bezala, aurten ere folklore eta kultura tradizionalari buruzko jardunaldietarako deialdia egin du Ortzadar Euskal Folklore Taldeak. Aurtengo ekitaldia urrian egingen dute, 17tik 29ra bitartean, eta herri antzezpenak izanen ditu ardatz. Besteetan bezala, parte hartu nahi duen oro gonbidatu dute Ortzadar taldeko kideek.

Edurne Elizondo / Iruñea

ORTZADAR Euskal Folklore Taldeak folklore eta kultura tradizionalari buruzko jardunaldien aurtengo ekitaldirako deialdia egin du. Urriaren 17tik 19ra bitartean egingen direnak Iruñeko taldeak antolatzen dituen hamabigarrenak izanen dira eta herri antzezpenak izanen dituzte ardatz.

Deialdia eginda, lanik gogorre-na gelditzen zaio Ortzadar taldeari hemendik aurrera, jardunaldien prestaketa alegia. Lehenengo urratsak eman dituzte jada. Gaia zehaztu ezezik, gaiari zein ikuspuntutatik heldu nahi dioten ere argi daukate Ortzadar taldeko kideek; aurretik aztertu dituzten eta ezagunagoak diren elementuak alde batera utzirik, ikuspegi zabal batetik aztertu nahi dituzte herri antzezpenak: pastoralak, paloteadoak, toberak, karroxak, galarrosak, asto lasterrak, maskaradak eta bestelako inauteri antzezpenak jorratuko dituzte, baita beste mota batzuetako herri antzezpenak ere, funanbulistak eta saltinbankiak kasu.

Hamabigarren jardunaldien berri Carlos Irujo Ortzadar taldeko kide eta ikertzaileak eman digu. Aurten aukeratu duten gaiari buruz, dirudien bezain sinplea ez baizik eta nahiko konplexua dela azpimarratu nahi izan digu lehenik eta behin.

Herri antzezpena denaren eta ez denaren arteko muga jartzea da, bere ustez, zailena. «Pastorala, adibidez, argi dago oso gauza herrikoia dela. Funanbulisten fenomenoak, aldiz, nahiz eta jende anitz erakarri eta arrakasta handia izan, herri fenomenoak dela erran daitezke?».

Bada, hala ere, herri antzezpenen inguruan Carlos Irujoen kezka pizten duen besterik ere. «Zenbait ikuskizun eta antzezpen asko landu dira, eta beste zenbait, berriz, guztiz ahaztu egin dira». Pastoralen eta toberen adibidea aipatu digu Ortzadarrekoak: «Pastoralen mundua asko landu da. Denbora asko eman zaio pastoralen ikerketari eta horren emaitzak garbiak dira. Pastoralak bizirik dirau egun eta azkenaldian asko zabaldu dira. Hor ditugu Nafarroan eta Gipuzkoan egiten diren antzezpenak, besteak beste. Toberak eta Erriberako paloteadoak, aldiz, ahaztu ere egin dira ia-ia. Ez dira lan-



Besteak beste, pastoralak aztertuko ditu Ortzadar taldeak jardunaldietan.

ALLANDE SOKARROS

du eta nolabait desagertzeaz daude. Nafarroa Behereko toberak ere arrakasta handiz egiten ziren orain 50 urte. Gaur egun ez dira ikusten, ez baitute laguntzarik izan. Nire ustez, merezi duten garrantzia eman behar diegu».

Herri antzezpenei buruz Ortzadar taldeak antolatu dituen jardunaldiek, hala ere, ez dute «ahaztutako ikuskizun» horien guztien bultzagarri izan nahi. Carlos Irujoen ustez ez da hori euren zeregina, lan egitea baizik. «Mende hasieran lan asko egin ziren, eta ondoren bat ere ez. La-

Carlos Irujo: «Pastoralaren mundua asko landu da; Toberak eta Erriberako paloteadoak, aldiz, ia-ia ahaztu egin dira, eta nolabait desagertzeaz daude»

nari berririo ekitea da gure asmoa, besterik gabe».

Azken urteetako balantzea

«ona» • Orain dela 11 urte lehenengo jardunaldiak antolatu zituenetik bide luzea egin du Ortzadar Iruñeko Euskal Folklore Taldeak. Jardunaldiak urtero antolatu ahal izateko, hain zu-

zen, «taldeko zaharrenek» egin duten lana ezinbestekoa izan da. Dantza eta musika jorratzen zuten elkarte honen barruan ikerketa landu nahi izan zuten eta lanari buru-belarri ekin zioten.

Hamaika urteotan mota askotako gaiak jorratu dituzte, dantza, musika, mitoak, sinismenak

eta Sanferminak kasu. Iazko jardunaldietarako herri sendagintza aukeratu zuten Ortzadar taldeko kideek. Begirada atzera botatzeko eskatu diogu Carlos Irujori eta ikusitakoa «ona» dela erantzun digu berak. Balantzea, beraz, ona. Urteetik urtera, hain zuzen, partehartzaileen kopurua igo da eta jardunaldiak finkatu direla erran daiteke. Carlos Irujok, hala ere, badu kexarik, nahiz eta txikia izan. «Beti jende bera gaude, urtero aurpegi berberekin egiten dugu topo. Halako jardunaldiek izan dezaketen merkata, finean, txikia da».

Hamabigarren jardunaldietara iritsita, beste urrats bat ematea da orain antolatzaileen asmoa —«sei bat lagun besterik ez gara ari jardunaldiak prestatzen»—, «profesionaltasunerako bidean beste urrats bat». Orain arte amateur moduan egin duten lanari profesionaltasun kutsua emateak, hala ere, ez du erran nahi azken urteetan Ortzadarrek antolatutako jardunaldietan ikertzaile anonimoek izan duten txokoaren atea itxi egingen denik, «ez dugu hori nahi». Izan ere, «ikertzaile anonimo askoren lanari esker egin dugu orain arte egin duguna». Aurten ere, besteetan bezala, autore moduan parte hartu nahi duen lagun orok izanen du aukera. Nahi duenak ekainaren 16a baino lehen lanaren edukiaren laburpen motza igorri beharko du Ortzadar taldearen egoitzara. Lan osoa, berriz, datorren irailaren 15a baino lehen. X

‘Sukil’ argitalpena kalean

FOLKLORE eta kultura tradizionala ikertu ezezik, egindako ikerketen bidez lortutako emaitzak argitaratu ere eman izan ditu Ortzadar taldeak.

Erribera aldean egindako ikerketak ikusi zuen lehenik argia. Ondoren, jardunaldiak antolatzen hasi zirenean, bertan jorratutakoak argitaratzeko konpromezu sendoa hartu zuten taldekideek.

Hasieran, *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra* aldizkarian agertu ziren Ortzadar taldeak egindako jardunaldien

emaitzak. Nafarroako Gobernuaren aldaketa izan zenean —PSNren ordezkari izan zuten boterera—, ordea, zailtasun ugari izan zuten modu berean jarraitzeko. «Aldizkaria jardunaldien akta huts bilakatzea ez omen zuten nahi. Erran zutenenez, Nafarroarekin zerikusirik zuten gaiak bakarrik argitaratzeko prest ziren». Ortzadar taldea, baina, ez zegoen horretarako prest. «Euskal Herri osorako egiten dituguk jardunaldiak. Katalunia eta Espainiako jendea ere etortzen da».

Nafarroako Gobernuaren aldaketak erakarri zituen arazoak zirela-eta, bere argitalpen propioa kaleratzeko erabaki zuen Ortzadar taldeak. Erabaki eta egin. Durangoko azokan ikusi zuen argia Sukil-en lehen zenbakiak. Hirurehun orrialde luzetan, Herri kirolak eta jokuak, Emakumea herri kulturaren eta Mito, errito eta siniskerak izenburuko jardunaldietan jorratutakoak bildu dituzte.

Sukil liburudendetan dago salgai, eta hainbat liburutegitan ere irakurleen eskura

dago. Lehen zenbakia ere prestatzen ari dira Ortzadar taldeko kideak, beste jardunaldietako edukiak jasoko dituenak. Bere argitalpenaren zenbaki berria ezezik, datorren urteko jardunaldiak ere —aurtengoak oraindik egin ez badira ere— prestatzen hasi dira.

Gaiari dagokionez, janzkera izan daiteke hurrengo urteko jardunaldietan aztertuko dutena. Inauteriei buruz ere lan egiteko gogoaz azaldu digu Carlos Irujo Ortzadar taldeko kideak.

* ◆ Carmela Perez-Salazar ◆ Irakaslea

«Kulturaren hizkuntza zen erromantzea»

Carmela Perez-Salazarrek *El romance navarro en documentos reales del siglo XIV (1322-1349)* bere doktoretza tesia jasotzen duen liburua aurkeztu zuen joan den asteazkenean, Principe de Viana erakundearen eskutik. Nafarroako erromantzearen azterketa filologikoa egin du bertan Nafarroako Unibertsitateko irakasleak.

Eduñe Elizondo / Iruñea


KOMUNIKABIDEEN aurrean aurkeztu berri du Carmela Perez-Salazarrek bere lana. Erromantzea ikertu ahal izateko Dolores Barraganen *Diplomática navarra* izeneko agiri bilduma hartu du oinarri: Frantses zaharraz, latinez eta Nafarroako erromantzez izkiriaturako erret agiriaren bilduma.

■ XIV. mendeko Nafarroako erromantzea hartu duzu aztergai. Zergatik aukeratu duzu mende hori zehazki?

Hainbat arrazoi izan ditut. Alde batetik, Nafarroako erromantzea hamahiru eta hamabosgarren mendeen artean garatzen dela kontuan hartu behar dugu. Hau da, garapen horren ondorioz gaztelaren pareko bihurtzen da. XIV. mendea, beraz, garrantzitsua da garapen hori ezagutzeko. Bestetik, hamahirugarren mendea asko ikertu den arren, XIV. arekin ez da berdina gertatu. Nik neuk XIII. mendeko testuak gehiago aztertu ditut. Beraz, nire lanean zegoen hutsunea bete nahi izan dut ikerketa honen bidez, osatzeko.

■ Erret agiriak hartu dituzu zure lanaren oinarri. Nafarroako erromantzea erabiltzen zen, beraz, agiri ofizialetan?

Bai, erromantzea hizkuntza idatzi zen eta euskara, berriz, hitan zena. Erromantzea, finen kulturaren hizkuntza zen,



Nafarroako erromantzea aztertu du Carmela Perez-Salazarrek bere liburuan.
OSKAR MONTERO

eremu kulturoetan erabiltzen zen hizkuntza. Horregatik, hain zuzen, euskararen atzerakada soziala da lehendabizikoz. Geografikoa geroago gertatu zen, XVII. mendetik aurrera gutxi gora-behera. Finean, erromantzea behar zuten orduan ondoko erreinuekin harremanetan jartzeko, eta postu garrantzitsuetara ailegatzeko ere gutxi beharrezkoa izaten zen. Nik ikertu ditudan agiriak, hain zuzen ere, erret agiriak dira, erre-

gearen notarioek idatzitako agiriak.

■ Argitaratutako testuak aurkitzea zaila dela erran duzu zure liburuaren aurkezpenean.

Bai, testu gutxi dago eta oso zaila da halako lan bat egiteko adina dokumentu aurkitzea. Kopuruaz gain, testuen arteko batasuna ere garrantzitsua da. Nafarroako Unibertsitateko Paleografia Departamentura jo nuen nik eta bertan Dolores Barraganek zuen *Diplomática navarra*. Testu zabala da eta galaren alde batasuna dute, erret notarioen agiriak baitira guztiak, 1322 eta 1349 urte bitartekoak. Agiri hauek, gainera, frantziar koroaren garaioak dira eta frantse-saren eta okzitanieraren eragina

nabaria da. Frantses zaharraz, latinez eta Nafarroako erromantzez daude idatzita agiriok.

■ XIII eta XV. mendeen bitartean garatu zen erromantzea Nafarroan aipatu duzunez. Nolako garapena izan zen?

XIII. mendetik aurrera erromantzea latinaren lekua betetzen hasten da pixkanaka. Latina, hala ere, ez da desagertzen eta ondorengo erret agiriak jarraituko dute. Erromantzea, edonola, garatuz doa eta hizkuntza idatzia bilakatzen da. Azkenik, XV. mendera ailegatuta, ezin daiteke jada erromantzeaz hitz egin, gaztelera baita dagoeneko ordukoa, nahiz eta oraindik erromantzearen zenbait ezaugarri bizirik iraun.

s o s l a i a

Carmela Perez-Salazar Filologia Hispanikoko lizentziatua da. 'El romance navarro en documentos reales' izenburupean argitaratu berri duen liburuaren oinarri den testuarekin, berriz, doktoretza eskuratu zuen. Gaur egun, linguistika orokorra eta gaztelania irakasten du Nafarroako Unibertsitatean.

Filologoa den aldetik, Nafarroako erromantzeak Carmela Perez-Salazarren interesa piztu du hasieratik. Bere ikerketak egin ahal izateko, ordea, zailtasunak izan ditu, testu gutxi baitago.

Orain arte XIII. mendeko erromantzea aztertu du batez ere. Bere ustez XIV. mendeari zorian arreta bere tesia egitekoan eskaini zion. Tesi horrekin doktoretza lortu, eta liburua ere idatzi du, jada kalean dagoena 1.600 pezetan.

■ Nafarroa-Aragoiko erromantzeaz mintzatzen ziren hasieran. Zuk, ordea, Nafarroako erromantzea dagoela aldarrikatzen duzu.

Bai. Izan ere, hasieran Aragoiko erromantzeaz mintzatzen ziren Nafarroako ia agiri bakar bat ere aztertu gabe. Hau da, frogatzeko zegoen batasun bati buruz mintzatzen ziren. Beraz, Nafarroa-Aragoiko erromantzeaz ari ziren ikerketek ez zuten testu nafarrik ezagutzen. Aragoikoa aztertzen zuten soilik eta nahiz eta antzekoa izan, ez da berdina.

■ Zein da, zure ustez, Nafarroako erromantzeak duen ezaugarri nagusia?

Nafarroako erromantzea trantsizioko dialektoa da. Hau da, Aragoikoarekin eta gaztelarekin antza duen dialektoa, nahiz eta ezberdinak izan. Nafarroako erromantzeak, hala ere, badu berezko ezaugarriak. Esaterako, hasieran Aragoiko erromantzearen antza handia du baina nafarra azkarrago garatzen da gaztelarantz. Nafarroako erromantzearen garapenean, hala ere, bi modu ezberdin bereizi behar dira. Hau da, alde batetik edozein hizkuntzak berezko duen garapena izan zuen Nafarroako erromantzeak eta, bestetik, gaztelaren eraginez gertatu zena jasan zuen, Nafarroak Gaztelako koroarekin bat egin zuenean bereziki gertatu zena.

«Trantsiziozko dialektoa da Nafarroako erromantzea, Aragoikoaren eta gaztelaren antza du baina ez dira berdinak»

P A N E
LUCRANDO

ZALDI EROA

